

KANALAK:

Komunikazio kanala izango da gure produktuaren kanalik garrantzitsuenetariko bat. iragarki baten bitartez gure produktua erosleari aurkeztuko diegu, saldu nahi duguna zer den argi eta garbi azalduko dugu gaizki ulerturik ez egon dadin.

Bigarrenik, banaketa kanala zein den erabaki dugu. Gure produktua industrialde batean sortuko dugu eta gero, hasieran internetez salduko dugu eta honek emaitza onak ematen baditu altzari denda desberdinekin hitz egin eta gure produktua hainbat denda desberdinetan saltzea lortuko dugu.

Eta azkenik, salmenta kanalak, produktua dendetan salduko da baino ez da osorik salduko, ispilua muntatu egin beharko du bakoitzak bere etxean, eta gure langile baten muntatu behar baldin badu diru gehiago ordaindu beharko da.

Erosketa egin eta gero, bezeroak bi urteko garantia izango du.